



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 27a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea. Akats zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzekoa. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko politika orokorrari buruzkoa. Manu Ayerdi Olaiola jaunak eginga (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontuetan jaso dezan analisi bat, jakiteko zer bilakaera izanen duten diru-sarrerek balizko egoera makroekonomikoen arabera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geriatría zerbitzua Ospitalegunean eskain dadin bere osotasunean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten ditu Nafarroako Arartekoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetako profesionalek osasun-azterketetarako ezarritako epeak ez betetzeari buruz eginiko txostenean jasotzen diren iradokizunak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indarririk gabe utz dezan lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan espetxe zentro berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amatasuna laguntzeko neurriak bultza ditzan, abortuen hazkunderari galga jartzeko neurri gisa. Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta konpromisoa agertzen du euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozialetan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, Holokaustoa Oroitzeko Europako Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoan eskolak emateko dauden baldintzei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (16. or.).
- Galdera, jakiteko ea azaroan eta abenduan arazorik izan al den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko nominak ordaintzeko, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (16. or.).
- Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxean DBHko lehen ziklorako dauden instalazioei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egin (17. or.).
- Galdera, jakiteko ea hartu-emanik izan ote den Air Nostrum enpresarekin, Noain-Iruñeko Aireportuan ematen dituen zerbitzuei buruz hitz egiteko, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (18. or.).
- Galdera, produktu turistiko eta kalitatezkoen atalari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Mercadona bezalako kateekiko hitzarmen eta akordioek izan dezaketen eraginaren balorazioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra baimendutako laguntzen kopuruari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (19. or.).
- Galdera, AHTaren Cadreitako lanak inauguratzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egin dituen ekintzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeen jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2012ko ekitaldirako (21. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak 2012ko ekitaldirako (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea.

AKATS ZUZENKETA

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legean akatsak atzeman dira. Legea 2011ko abenduaren 29ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketak egin dira:

3. orrialdean, ezkerreko zutabean, 4. artikuluko 1. idatz-zatiko ñ) letrak hauxe esaten du: "940001-95400-7609-336105 kontu-saila, 'Jarduketa bereziak Tafallako kirol instalazioetan' izenekoa." Idatz-zati horretatik kendu behar da, eta paratu behar da 4. artikuluko 7. idatz-zatian, o) letra berri bat sortuz testu berberarekin.

3. orrialdean, eskuineko zutabean, 4. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letrak hauxe esaten du: "410000-41100-2212-322000 kontu-saila, 'Funtzionamenduaren, jardueren eta ekipamendu materialaren finantzaketa' izenekoa." Hauxe esan behar du: "410000-41100-2212-322000 kontu-saila, 'Zentroen funtzionamenduaren, jardueren eta ekipamendu materialaren finantzaketa' izenekoa."

4. orrialdean, eskuineko zutabean, 4. artikuluko 6. idatz-zatiko g) letrak hauxe esaten du: "740000-7400-4400-451303 kontu-saila, 'Gestión Ambiental de Navarra erakundeak egindako proiektu komuni-

tarioak' izenekoa." Hauxe esan behar du: "740000-74000-4400-451303 kontu-saila, 'Gestión Ambiental de Navarra erakundeak egindako proiektu komunitarioak' izenekoa."

17. orrialdean, ezkerreko zutabean, 32. artikuluko azkenurreko lerroaldeak hauxe esaten du: "920006 91830 4809 231B00 kontu-saila, 'Zerbitzuari lotutako laguntzak' izenekoa. Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak, hain zuzen"

Honela behar du:

"920006 91830 4809 231B00 kontu-saila, 'Zerbitzuari lotutako laguntzak' izenekoa.

Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak, hain zuzen"

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak 1. titulu-ko VI. kapituluaren arautzen ditu "goi mailako arte-irakaskuntza" deiturikoak, eta horien barruan sartzen ditu arte dramatikoko irakaskuntzak. Lege horretako 3.5 artikulua ezartzen du irakaskuntza mota hori Espainiako goi-mailako hezkuntzaren parte dela, eta, 46.2 artikulua ezartzen duenez, berriz, goi-mailako arte-irakaskuntzen definizioa eta irakaskuntza horien ebaluazioa Espainiako goi-mailako hezkuntzaren antolamenduaren testuinguruan eta Europako esparruan egiten da.

Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzeko Foru Lege proposamen honek bilatzen du arte dramatikoko titulazioa unibertsitate-esparrura eramatea eta, aldi berean, horren aitortza soziala eta profesionala sustatzea.

Foru lege proposamenak titulu bakarra du, zeinaren bidez Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzen baita, a Foru Komunitateak hezkuntzaren alorrean dituen eskumenekin eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoarekin bat, eta Institutuaren antolamendu-egitura oinarritzeko ezartzen baita.

I. TITULUA

Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Sorrera eta izaera

1. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua sortzen da, Hezkuntza Departamentuari atxikitako erakunde autonomo gisa, nortasun juridiko berezituarekin eta kudeaketa-autonomiarekin nahiz jarduteko gaitasun osoarekin, bere eginkizunak betetzeko.

2. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua foru lege honetan, Institutuaren Antolamendu Erregelamenduan eta Nafarroako Foru Komunitatearen araubide berariazkoan xedatuari jarraikiz arautuko da.

2. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren antolamendua eta funtzionamendua Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendu baten bidez ezarriko da, zeina Nafarroako Gobernuaren dekretu bidez onetsiko baita.

3. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren jarduerari aplikatu beharreko araubide

juridikoa ondokoetan ezarritakoa izanen da: foru lege honetan, Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan eta Nafarroako Foru Komunitatearen araudi berariazkoan; dena dela, hori ez da eragozpen izanen administrazio publiko guztien gaineko prozedura komunari buruzko arauak aplikatzeko.

3. artikulua. Xedea.

1. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuak xede du Europako esparruan goi-mailako hezkuntza antolatzearen betekizun eta berezitasun berekietara egokitzea arte dramatikoko irakaskuntzak.

4. artikulua. Eginkizunak.

1. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuak ondoko eginkizunak ditu esleiturik:

a) Arte dramatikoko irakaskuntzak esparru akademikoan eta antolamenduzkoan garatzea, Foru Komunitatearen arauak arlo horri dagokionez ezarritako taxukera eta araubidearekin bat.

b) Graduondo ofizialeko programen eskaintza ezartzea.

c) Irakaskuntza hauetako ikasleei eta tituludunei erraztea ikasketa osagarrietarako eta hobekuntza profesionaleko ikasketetarako sarbidea.

d) Institutuari atxikitako giza baliabideak kudeatzea eta irakasleen prestakuntzaz arduratzea.

e) Legez edo erregelamendu bidez esleitzen ahal zaion beste edozein eginkizun.

II. KAPITULUA Egitura organikoa.

5. artikulua. Zuzendaritza organoak.

Ondokoak izanen dira Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuko zuzendaritza organoak:

a) Lehendakaria.

b) Zuzendaria.

c) Zuzendaritza Kontseilua.

6. artikulua. Lehendakaria.

1. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren titularra izanen da Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren lehendakaria.

2. Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezartzen diren eginkizunak izanen ditu esleiturik Institutuaren lehendakariak, eta, betiere, ondokoak:

a) Institutuaren legezko ordezkari goren.

b) Zuzendaritza Kontseiluaren lehendakaria.

c) Institutuaren izenean kontratuak eta hitzarmenak sinatzeko ahalmena.

d) Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein.

3. Lehendakariak bere kalitateko botoaren bidez ebatziko ditu Zuzendaritza Kontseiluaren bilkuretan gerta litezkeen berdinketak.

4. Lehendakariak zuzendariari eskuordetu ahal izanen dizkio bere eginkizunak.

7. artikulua. Zuzendaria.

Nafarroako Foru Komunitatearen erabaki bidez izendatuko da, Hezkuntzako kontseilariak proposatuta, Institutuko zuzendaria.

2. Erregelamendu bidez ezartzen diren eginkizunak izanen ditu zuzendariak, eta, betiere, ondokoak:

a) Zuzendaritza Kontseiluari proposatzea Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren urteko programazioa eta aurrekontuen aurreproiektua.

b) Zuzendaritza Kontseiluak onetsitako jarduketak ildoak garatzea, haren erabakiak betetzea eta hark eskuordetzen dizkion eginkizunak betetzea.

c) Gastuak baimentzea, kredituak xedatzea, betebeharrak aitortzea eta ordainketak agintzea.

d) Kudeaketari buruzko urteko oroitidazkia Zuzendaritza Kontseiluari igortzea.

8. artikulua. Zuzendaritza Kontseilua.

1. Zuzendaritza Kontseilua Institutuaren kide aintzeko gobernu-organoa da, ondokoek osatua:

a) Lehendakaria, zeinak deialdiak egin eta bilerak zuzenduko baititu.

b) Zuzendaria.

c) Kultura arloko eskumena duen departamentuaren ordezkari bat.

d) Irakasleen bi ordezkari.

2. Lehendakariak Hezkuntza Departamentuaren ordezkarien artean hautatzen duen ordezkariak beteko ditu Kontseiluko idazkariaren eginkizunak.

9. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak.

1. Erregelamendu bidez ezartzen diren eginkizunak izanen ditu Zuzendaritza Kontseiluak, eta, betiere, ondokoak:

a) Institutuaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren proiektua prestatzea, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan.

b) Institutuko lanpostuen zerrenda proposatzea, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan.

c) Institutuaren kudeaketari buruzko urteko oroitidazkia onestea.

d) Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren antolamendu-eredua proposatzea.

e) Hezkuntza arloko eskaintzaren programazioa onestea.

f) Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren tasak eta prezioak proposatzea.

2. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarriko da Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu-araubidea.

III. KAPITULUA Langileak

12. artikulua. Giza baliabideak.

1. Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuak bere eginkizunak betetzeko behar adina langile edukiko du.

2. Nafarroako Antzerki Eskolako egungo langileak Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuko langile izanen dira.

IV. KAPITULUA Ekonomia- eta finantza-araubidea

13. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

Ondokoak izanen dira Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutuaren baliabide ekonomikoak:

a) Bere ondarearen bidez sortzen diren errendimenduak.

b) Komunitatearen nahiz beste administrazio publiko baten Aurrekontu Orokorretan esleitzen zaizkion kontusailak.

d) Pertsonak nahiz erakundeek, hala publikoek nola pribatuek, bere alde egindako dohaintzetatik edo borondatezko ekarpenetatik eta legatuetatik, diru-laguntzetatik eta hitzarmenetatik heldu direnak.

e) Bere jardueraren bidez lortzen diren diru-sarrerak.

f) Legez eslehi dakiokkeen beste edozein baliabide.

Lehenengo xedapen gehigarria. Institutua jardunean hasteko baliabideak.

Nafarroako Gobernuak egungo Nafarroako Antzerki Eskolaren baliabide materialak eta langileak edukiko ditu eskueran Nafarroako Arte Dramatikoaren Goi-mailako Institutua abian jartzeko.

Xedapen indargabetzailea. Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hogeit eguneko epean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko politika orokorrari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko jabeldura, jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko politika orokorrari buruzko jabeldura, Nafarroako Gobernuko lehendakariari egina.

Nafarroako Gobernuari askotan entzun diogu enplegua sortzea eta mantentzea direla haren lehentasunetan lehena. Hartara, eskueran dituen tresna guztiak erabiliko dituela helarazi digu. Aldi berean, ikusita Nafarroako Gobernua ez dagoela oso prest zerga bidezko diru-sarreraren sistema berrikusteko –ikusirik ez dago 2012ko aurrekontuak–, ohartuta gaude jarduera ekonomikoa sustatzeko dauden baliabide ekonomikoak oso mugatuak direla, nahiz eta tresnak ugariak izan. Batetik, Gobernuaren aurrekontuan ezarritako kontusailak (funtsean, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren 750 programan jasotakoak, zeinen kontusail nagusien zenbateko handi bat konprometitura dagoela

ematen baitu); bestetik, Nafincoren bidezko abalen programa, orain dela gutxi batzordean eztabai-datutakoak; bestetik, Sodena, hala zenbait proiektutan akzioen bidez parte hartzearen bitartez nola zenbait proiektuari abal emateko duen ahalmenaren bitartez; eta Nafarroako Gobernua bera, zenbait ekimeni zuzenean emandako abalen bitartez; bestetik, Moderna Plana eta haren etorkizuneko garapen teorikoa eta, orobat, jarduera ekonomikoa ri bultzada emateko dauden gainontzeko tresna eta sozietate publiko guztiak.

Orain arte ikusi dugu Gobernuak tresna horiek guztiak baliatu izan dituela zenbait sektoretako enpresa eta proiektuei laguntzeko, eta hala egin duela egoera ekonomiko ezberdinetan eta bestelako enplegu-bolumen ezberdinekin.

Jabeldura honen helburua da jakitea zein izanen den Gobernuak hemendik aurrera baliatuko duen politika, dauden tresna horietako bakoitza erabiltzerakoan. Halatan, inbertsio berriei laguntzeari dagokienez, zer irizpide orokor baliatuko dira 2012an laguntzak emateko? Sektore estrategiko berrietako proiektuak lehenetsiko dira nahiz eta epe laburrean lanpostu ugari sortzea ekarri ez? Hala baldin bada, zer sektore lehenetsiko dira? Eskualde batzuk lehenetsiko al dira eta beste batzuk ez? Aitzitik, duen profila duela ere Nafarroatik kanpora inolako proiektuak alde egin ez dezan saiatzeko printzipioa zorrotz beteko al da? Ba al da marra gorririk? Europako beste erregio batzuekin alderatuta, zeintzuk dira Nafarroak inbertsio-proiektu berriei eskaintzen dien laguntza instituzionalaren alde sendoak eta ahulak?

Bestalde, eta gure enpresa txiki eta ertainen zirkulatzaile-beharrizanei dagokienez, mantendu egingen al dira oraingo abal-lerroak? Areagotu egingen dira? Abalak emateko irizpideak aldatuko dira? Ukitutako sektoreak eta enplegu-bolumenak pisua izanen dute irizpide horietan?

Azkenik, krisian dauden enpresei dagokienez, zer politika baliatuko du Gobernuak?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontuetan jaso dezan analisi bat, jakiteko zer bilakaera izanen duten diru-sarrerek balizko egoera makroekonomikoen arabera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aurrekontuetan jaso dezan analisi bat, jakiteko zer bilakaera izanen duten diru-sarrerek balizko egoera makroekonomikoen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontuetan jaso dezan analisi bat, jakiteko zer bilakaera izanen duten diru-sarrerek balizko egoera makroekonomikoen arabera.

2012rako onetsi berri ditugun aurrekontuetan jasotzen diren diru-sarrerak orain dela zenbait hilabete egindako aurreikuspen makroekonomiko batetik heldu dira, zeinaren arabera 2012an BPGa % 1,9 igoko baitzen. Hori urtero gertatzen den zerbait da, 2012an bereziki kezagarria dela alde

batera utzita. Aurrekontuak taxutu, eztabaidatu eta onesteko ezarritako prozeduraren parte da.

Aurrekontuetan jasotzen den dokumentazioaren barruan, oso urria da zerga bidezko diru-sarrei buruz egindako aurreikuspenekin batera doan informazioa (1. eta 2. kapituluak, zuzeneko eta zeharkako zergak). Paragrafo oso laburretara mugatzen da, zeinetan zerga bakoitzerako egindako aurreikuspena hausnarketa makroekonomiko oso orokorretara lotzen baita.

Gainera, diru-sarreraren aurreikuspenarekin batera ez da egiten analisi xehatu bat, jakite aldera koadro makroekonomikoko funtsezko aldagaien aldaketak, batik bat BPGaren igoerak, nola eraginen liokeen zerga bidezko diru-sarreraren aurreikuspenari, horretan oinarritzen baita aurrekontuetan jasotzen den diru-sarreraren aurreikuspena. Gure ustez, informazio hori balio handi-handikoa da aurrekontuak hobeki ulertzeko eta, bereziki, alde aurretik balioetsi ahal izateko koadro ekonomikoan gerta litezkeen aldaketek zer eragin izan lezaketen kasuan kasuko ekitaldian.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, etorkizunean, aurrekontuen proiektuan, diru-sarreraren aurreikuspenari buruzko informazio osagarri gisa jaso dezan analisi bat, jakite aldera koadro ekonomikoko funtsezko aldagaien aldaketak, batik bat BPGaren igoerak, zer eragin izan dezaketen zerga bidezko diru-sarrei buruz egindako aurreikuspenean.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geriatría zerbitzua Ospitalegunean eskain dadin bere osotasunean.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita geriatría zerbitzua Ospitalegunean eskain dadin bere osotasunean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2008ra arte, Geriatría unitatea Nafarroako Ospitalean zegoen kokatuta. Zerbitzuak 4 sendagile eta 20 ohe zituen, eta horri gehitzen zitzaizkion traumatologiako ortogeriatría unitateko nahiz beste zerbitzu batzuetako sail arteko orrien bidez heldutakoak.

2008ko urtarrilean, Nafarroako Ospitaleko zerbitzu hori eta beste batzuk kolapsatuta eta gainezka zeudelako aitzakian, San Miguel Klinikarekin 20 ohe hitzartzea erabaki zen.

Urte horretako urtarrilean hasi zen aztertzen San Miguel Klinika horretan egonaldi ertaineko

unitate bat sortzeko aukera, baina azkenean Nafarroako Ospitaleko Geriatría Zerbitzuko mendatasuna duten akutuen gaineko hitzarmena egin zen.

Abuztuan erabaki zen beste 20 ohe gehiago ateratzea Nafarroako Ospitaletik San Miguel Klinikara; alegia, 40ra bitarte handitu zen San Miguel Klinikako Geriatría Zerbitzuko ohe-kopurua (denak ziren akutuak), eta 8-12ra bitarte gutxitu zen Nafarroako Ospitaleko Geriatría Zerbitzuko ohe-kopurua.

Orduan esan zen San Miguel Klinikako zerbitzu hori behin-behinekoa zela, C pabiloiko obrak egiten ari ziren bitarterako.

C pabiloia ia bukatuta dago, eta Nafarroako Gobernuak urte honetarako hitzarmenak berritu ditu, besteak beste San Miguel Klinikarena, eta dirua "geriatría 40 ohe ospitaleratze-araubidean baliatzea" bideratuko da, beste prestazio batzuen artean.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eskatzen dio Geriatría Zerbitzua osorik eman dadin Ospitalegunean (Nafarroako Ospitalea).

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eskatzen dio San Miguel Klinikarekin berrikitan sinatutako hitzarmena berrazter dezan; izan ere, Ospitalegunean Geriatría Zerbitzua berriro ezarri ostean, hitzarmena munta txikiagokoa izan beharko litza-teke.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 17an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak onesten ditu Nafarroako Arartekoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetako profesionalek osasun-azterketetarako ezarritako epeak ez betetzeari buruz eginiko txostenean jasotzen diren iradokizunak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak onesten baititu Nafarroako Arartekoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetako profesionalek osasun-azterketetarako ezarritako epeak ez betetzeari buruz eginiko txostenean jasotzen diren iradokizunak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Arartekoak Legebiltzarreko Eledunen Batzarraren eskari bati jarraikiz eginiko txosten bat igorri dio Parlamentuari, ondokoa hain zuzen ere: "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak espezialitate desberdinetan azterketa medikoetarako profesionalek ezarritako epeak betetzeari buruzko txostena."

Txosten horretako VII. atalak "Proposamenak" jasotzen ditu. Hona:

VII. PROPOSAMENAK

Erakunde honek, aplikatzekoak diren arauak eta azterketa-konsultek gaur egun itxaron denbori dagokienez Nafarroako osasun sisteman duten errealitatea aztertuta, Osasun Departamentuak emandako informazioaren arabera, egokitzen josten du, uztailaren 3ko 4/4000 Foru Legeko 16.

artikuluko b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera, honako iradokizunak egitea osasun administrazioari, azterketa kontsulten antolaketa eta kudeaketa hobetze aldera, betiere gaixoei pairatu behar izaten dituzten itxaronaldiak gutxitzeko:

a) Osasun espezialitate desberdinetako azterketa medikoetarako itxaronaldien egoerari eta haien arazoiei buruzko ebaluazio sakona egitea.

b) Ebaluazio hori egin ondoren, neurri efektiboen programa bat egin eta onestea. Neurri horiekin gaur egun azterketa medikoak egiteko dauden itxaronaldiak gutxitu egiten lirateke. c) Azterketa medikoetarako gehieneko itxaronaldiei buruzko araudi bat planteatzea edota egitea, edo erreferentziako irizpide orokor batzuk-protokoloetan jasoak eta argitaratuak; esate baterako Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernuaren webgunean- ezartzea espezialitate mediko bakoitzerako, nahiz eta kasu guzti-guztietan haiek betetzeko betebeharririk ez izan.

Alde batera uzten dugu arau orokor bat egiteko aukera, zeren eta azterketa medikoak egiteko premia eta haiek egiteko denborak edo epeak espezialitate bakoitzaren arabera baitira, eta espezialitate bakoitzaren barruan ere, gaixo bakoitzak dauzkan patologien arabera eta gaixoaren egoera psiko-fisiko eta emotibo zehatzaren arabera. Laburbilduz, azterketa medikoetan gertatzen den kasuistika dela eta, ez da gomendatzen erregulazio orokor abstraktu bat egitea.

Nolanahi ere, komenigarria litzateke itxaronaldietarako epe edo erreferentziako gehieneko denbora horiek Nafarroako Gobernuaren webgunean eta osasun etxeetan argitaratutako protokoloetan jasotzea, espezialitate eta gaixotasunen arabera, berraztertze modukoak izan diren irizpide medikoen arabera. Betiere, gaixoaren interes klinikoa nagusitu da antolamenduzko interesen gainetik.

d) Osasun etxeen jarduketetan diligenzia ahal den guztian areagotzea, osasunaren babes integrala bermatzeko antolamenduzko neurri egokien bitartez eta behar diren aurrekontu-doikuntzen bitartez, azterketa-konsultetan gaixoei arazoizko itxaronaldi batzuk bermatzeko, saihestezina den malgutasun baten barruan. Itxaroteko epe horiek, orokorrean, ez lukete laurogeita hamar eguneko

muga gainditu beharko.e) Itxaronaldiak gaixoei osasun-egoeraren okerragotzea dakarkien kasuetan, Osasun laguntza Espezializatuaren arloko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean jasotako edukiari jarraituz, sendagileei gogorarazi beharko litzaieke ingurubar hori nabarmenarazi beharko dutela azterketakontsultarako data finkatzen duenean. Eta sendagilearen agindu horren arabera, itxaron zerrenden sistema formalizatu bat ezartzea, guztientzat eskuragarria, lehen kontsultaren zain zauden gaixoentzat ezarrita dagoenarenantzekoa eta gehieneko itxaronaldietarako berme berdinekin eta tratamendu-aukera berdinekin.”

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak onetsi egiten ditu Nafarroako Arartekoaren txosteneko VII. atalean egiten diren proposamenak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari eskatzen dio zirriborro bar igor dezan Parlamentu honetara, mozio hau onesten denetik sei hilabeteko epean, eztabaidatu eta ondoren onesteko, Nafarroako Arartekoaren txosteneko VII. atalean jasotzen diren proposamenen edukiarekin.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 17an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indarrrik gabe utz dezan lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita indarrrik gabe utz dezan lanbide arteko gutxieneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu indarrrik gabe utz dezan 2012rako lanbide arteko gutxi-

eneko soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea, eta horiek eguneratu ditzan.

Estatuko Aldizkari Ofizialak errege dekretu bat argitaratu zuen 2011ko abenduaren 31n; horren bidez, 2012rako lanbide arteko gutxieneko soldata izoztu zuen, zeina, une honetan, hilean 641,40 eurokoa baita.

Izoztea lehen aldiz gertatu da 1980az geroztik, eta deigarria da, aurreko Gobernuaren zazpi urteetan % 17 igo baitzen. Lan Ministerioaren datuen arabera, 180.000 langilek baino gehiagok jasotzen dute zuzenean lanbide arteko gutxieneko soldata, zeinaren zenbatekoa ere garrantzitsua baita, zeren hitzarmen kolektiboetan hori erabiltzen baita ordainsarien kontzeptuak ezartzeko.

Neurri hori gutxikorra eta bidegabea da. Neurri tekniko bat izatetik urrun, gutxiago irabazten duten langileekiko sentiberatasun falta erabatekoa erakusten du. Neurri honek ez du zerikusirik austeritate-politikekin eta krisiaren aurkako politikekin, ez baita gastu publikoaren erreferentzia eta ez dio gastu publikoari eragiten; are gutxiago, defizita murrizten laguntzen.

Are harrigarriagoa da kontuan hartzen baldin badugu Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldata Europar Batasuneko txikienetakoa dela.

Moneta-unitateetan neurtuz nahiz erosahalmeneren parekotasunari erreparatuz gero, 15 herrialdeko Europar Batasunean Portugalekoaren gainetik baizik ez dago, baldin eta herrialdeen arteko prezio-diferentzia deskontatzen badugu.

Bestalde, neurri apetatsu eta bidegabe honek Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagokienez diru-bilketa ahalmena gutxitzen du, zeharbiz.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du indarrik gabe utz dezan 2012rako lanbide arteko gutxienerako soldataren eta Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) izoztea, eta horiek eguneratu ditzan.

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan espetxe zentro berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan espetxe zentro berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan espetxe berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera.

Jakina denez, laster irekiko da Nafarroako Foru Komunitateko espetxe berria, zeina Santaluziagañan baitago, eta aurreikuspenen arabera pertsona askok ibili beharko dute instalazio horietara joan-

etorrian: espetxeko langileak, abokatuak, presoek, senitartekoak, eta abar.

Kontuan hartzen badugu, orobat, espetxearen inguruetan industrialde bat eta merkataritza zentro bat daudela, pertsona askok joan behar duela, hainbat arrazoi direla medio, eremu horretara egunero, bai eta espetxea eta hirigunea eta eskualdeko hiri garraioaren sarea lotu beharra dagoela, albo-eragin positiboak izan ditzake hiriaren eta espetxearen arteko lotune berriak.

Argi dago espetxe orok egon behar duela bere hiri-inguruneari ongi konektatuta. Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozio hau aurkeztu dugu uste dugulako ukitutako administrazio publikoen interesak koordinatzen ahal dituela Gobernuak.

Joan-etorriak erraztea helburu eta garraio pribatuaren aldean garraio publikoa leheneste aldea, ekonomia- nahiz ingurumen- arrazoiengatik eta abar aurkeztu dugu ondoko proposamena, Nafarroako Parlamentuko Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balioets dezan garraio publikoko linea bat, espetxe berriaren eta hirigunearen artekoa, egokitze aukera, behar adinako maiztasuna izanzen duena, linea hori eta eskualdeko hiri garraioaren sarea lotuz, arestian aipatutako beharrian guztiei erantzuteko.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da amatasuna laguntzeko neurriak bultzatzen, abortuen hazkunderari galga jartzeko neurri gisa.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita amatasuna laguntzeko neurriak bultzatzen, abortuen hazkunderari galga jartzeko neurri gisa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, amatasuna laguntzeko neurriak bultzatzea proposatzen da, Nafarroan abortuen gorakadari galga jartzeko neurri gisa.

Nafarroan 2010ean egindako abortuei buruz Osasun Ministerioak argitaratutako azken datuek erakusten dute interbentzioak igo egin direla aurreko urtearekin alderatuta. Baina are kezgarriagoa da Foru Komunitatean abortu kopurua igo izana 2010eko uztailaren 5ean indarrean sartu zenez geroztik Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa.

2010ean 855 abortu egin zitzaizkien Nafarroan bizi ziren emakumeei; 2009an baino % 24,1 gehiago. Espainian, 2009tik 2010era % 1,38 igo zen, oro har, abortuen kopurua. Foru Komunitatean 2010ean egin ziren 855 abortuen % 41,98 (359) lege berria indarrean sartu aurretik egin ziren (uztailaren 5aren aurretik), eta % 58,02 (496) uztailaren 5aren ostean.

Haurdunaldia eteteko arrazoia ere aldatu da uztailaren 5ean abortuaren lege berria indarrean sartu ostean. Lege hori aplikatzen hasi aurretik emakumeen % 91,08k abortatzeko alegatzen zuten arrazoia "amaren gaixotasun larria" zen; % 8,68k "fetuaren arriskua," eta % 0,28k "bortxaketa." Legea indarrean sartu ostean, arrazoia amaren gaixotasun larria izan zen kasuen % 2,62n, fetuaren arriskua % 5,44n, eta, gainerakoetan, kasuen % 91,93n, emakumeak hala eskatuta egin zen abortua.

Datu horiek agerian uzten dute Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa ez duela lortu Gobernuak bere garaiaren iragarritako hobekuntza sexu- eta ugalketa-osasunari dagokionez, eta, horrenbestez, ez duela ekarri nahi gabeko haurdunaldien eta abortuen jaitsierarik. Nafarroan abortuen hazkunderari galga jartzeko xedez –horietako asko gertatzen dira haurdun dagoen emakumeak ez dituelako amatasuna laguntzeko neurriak ezagutzen–, Talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1.- Haurdun dagoen emakumeari bere haurdunaldia burutzeko autonomia ziurta diezaion, bereziki nerabeei, gizarteratzeko eta laneratzeko neurrien bidez.

2. Seme-alabak zaintzeko zailtasunak dituzten familientzako haur-hazkuntzan laguntzeko neurriak bultzatzen.

3. Harrera eta adopzio neurriak sustatzeko plan bat gara dezan, haurdun dagoen emakumeari haurdunaldiarekin jarraitzen laguntzeko alternatiba gisa.

4. Prebentzio eta hezkuntza arloko ekintzak ezar ditzan eboluzioaren etapa guztietan, eta, bereziki, nerabeentzako informazio- eta hezkuntza-neurriak.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta konpromisoa agertzen du euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozialetan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta konpromisoa agertzen baitu euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozialetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko bozeramaileek, Ganberako Araudiak ezarritakoaren arabera,

ondoko mozioa aurkeztu dute, 2012ko urtarrilaren 17ko jabeldura batetik eratorria, osoko bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Nafarroako Parlamentuak urtarrilaren 17an egindako Osoko Bilkuran, gai zerrendaren 7. puntuan, eztabaidatu zen parlamentu-talde honek Gobernuari egindako jabeldura bat. Bertan eskatzen zen Gobernuaren posizioa euskaraz aritzen diren komunikabideen inguruan eta 1986/18 Legea betearazteko neurrien inguruan.

Horregatik guztiagatik, eta eztabaida burutu ondotik, parlamentu-talde honek bere eztabaida eta bozketarako ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere borondate eta konpromisoa agertzen du komunikabideetan euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du planifikazio bat burutzera, komunikabideetan euskara ager dadin.

Iruñea, 2012ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Adierazpen instituzionala, Holokaustoa Oroitzeko Europako Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“2005eko urtarrilaren 27an, Europako Parlamentuak onetsi zuen urtarrilaren 27a izan dadila Holokaustoa Oroitzeko Europako Eguna, eta Europar Batasuneko estatuetako Gobernuak eta Parlamentuei dei egin zien bat egin dezaten Holokaustoaren biktimen oroimenezko ekitaldiekin.

Eledunen Batzarrak adierazpen instituzional bat onetsi zuen hori dela-eta, 2010eko otsailaren 1ean.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak:

– Erabaki du bat egitea Holokaustoaren biktimen oroimenezko ekitaldi instituzionalekin, argi eta garbi erakuste aldera Nafarroako gizartearen gaitzespena milaka eta milaka pertsona bere jatorri etniko edo erlijiosoarengatik jazarri eta erailteza ekarri zuen tragedia hori dela-eta.

– Orobat gaitzesten du gizakienganako mespretxuan, arrazakerian eta xenofobian oinarritutako genozidio oro, bai eta intolerantzia-ekintza oro

nahiz gorroto-adierazpen edo -zirikaldi oro ere, onartezinak dira-eta estatu eta gizarte demokratikoetan.

– Giza eskubideen defentsarik irmoena egiten du, hala nola bizitzeko, askatasunerako, osotasun fisiko nahiz morala izateko eta tratu berdintasuna jasotzeko eskubideena, zein ere diren arraza, jatorri etnikoa, erlijioa, gizarte-maila, iritzi politikoak edo sexu-joera.

– Adierazten du konbentziturik dagoela hezkuntza funtsezkoa dela intolerantziari, diskriminazioari eta arrazakeriari aurrea hartzeko eta aurre egiteko, bai eta elkarrizketa, bakea, lankidetzeta eta besteenganako errespetua bezalako balioak sustatzeko ere.

– Nafarroako gizarteari dei egiten dio parte har dezan Holokaustoaren tragedia eta laztura pairatu dutenen memoria bizirik irauten lagun dezaketan ekitaldietan eta gaitzets eta arbuia dezan gizakiaren duintasunaren aurkako ekintza oro.”

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoan eskolak emateko dauden baldintzei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxe publikoan eskolak emateko dauden baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntzako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamenduak ba al daki zer baldintzatan ematen diren Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko eskolak “Dos de Mayo” ikastetxean?

Ikastetxe horrek izan al du azken 8 urteetan kontseilari edo zuzendari nagusiren baten bisitarik? Azken 8 urteetan zenbat ikuskaritza-bisita egin dira Castejongo “Dos de Mayo” Ikastetxera, non Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa ematen baita?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko ea azaroan eta abenduan arazorik izan al den Osasunbi-dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko nominak ordaintzeko.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea azaroan eta abenduan arazorik izan al den Osasunbi-

dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko nominak ordaintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Ganberako Araudiak diosenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, zehazten den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2011ko azaroan eta abenduan arazorik izan al da Osasunbideko langileen nominak ordaintzeko? Hala izan bada, zernolako irtenbidea eman zaio egoera horri?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxean DBHko lehen ziklorako dauden instalazioei buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Castejongo “Dos de Mayo” ikastetxean DBHko lehen ziklorako dauden instalazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Ganberaren Araudiari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin

nahi du, Osoko Bilkuran Hezkuntza Kontseilariak, Jose Iribas jaunak, erantzun dezan.

Pasa den ostiralean, hilak 13, Hezkuntza Batzordea Castejongo ikastetxean izan zen bertako instalazioak aurrez aurre ezagutzeko. Bertan ikusi genuenaren ondoren, honakoen erantzuna nahiko genuke:

– Ezagutzen al du Hezkuntza Departamentuak zein balditzatan ematen diren eskolak “Dos de Mayo” ikastetxean, Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloan?

– Izan al du ikastetxe honek azken 8 urteetan kontseilari edo zuzendari orokorren baten bisitarik?

– Azken 8 urteetan zenbat ikuskaritza bisita izan ditu Castejongo “Dos de Mayo” Ikastetxeak Bigarren hezkuntzako Lehen Zikloa ematen den eraikinean?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, jakiteko ea hartu-emanik izan ote den Air Nostrum enpresarekin, Noain-Iruñeko Aireportuan ematen dituen zerbitzuei buruz hitz egiteko.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea hartu-emanik izan ote den Air Nostrum enpresarekin, Noain-Iruñeko Aireportuan ematen dituen zerbitzuei buruz hitz egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Air-Nostrum enpresarekin harremanik izan al du Legegintzaldi honen hasieratik, ba al du harremanik une honetan edo etorkizunean harremanik izateko asmorik al du, aire-konpainia horrek Iruña-Noaingo aireportuan ematen dituen zerbitzuei dagokienez eta zerbitzu horiek aldatzeko edo eteteko aukerari dagokienez?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, produktu turistiko eta kalitatezkoen atalari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, produktu turistiko eta kalitatezkoen atalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galderak egin ditu, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Egungo krisia dela-eta, turismoaren sektoreak beharrezkoa du erakundeek babes handia eman diezaioten, suspertu eta zabalduko bada. Horrenbestez, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

1.- Zein izan da turismo-produktuen garapenera eta antolamenduaren atalaren –A1120 atalaren– kontusailtako gastuen xehekapena 2011n zehar?

A1200 A10001

2262-32300, 2269-432302, 4609-432300, 4609-432304, 4709-432300, 4709-432303, 4819-432300, 4819-432302, 6055-432302, 6090-432300, 7609-432300, 7609-432302, 7609-432303, 7609-432304, 7709-432300, 7709-432302, 7709-432304, 7819-432300.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Mercadona bezalako kateekiko hitzarmen eta akordioek izan dezaketen eraginaren balorazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Mercadona bezalako kateekiko hitzarmen eta akordioek izan dezaketen eraginaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak Mercadona eta gisako kateekin hitzarmenak eta akordioak sinatzen dituztenean, kontuan izaten al du ezarpen-akordio horiek denda txikietan izanen duten eragina? Hala baldin bada, zer azterlan edo txosten baliatzen ditu?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra baimendutako laguntzen kopuruari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra baimendutako laguntzen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak aurrekontu-doikuntza handi bat onetsi zuen 2011ko irailaren 28an, Estatuak ekitaldi honetarako ezarri duen % 1,3ko defizita betetzen saiatzeko. Erabaki hori ekonomiaren eta lanpostuen arloko krisi sakoneko testuinguru batean hartu da, enpresek beren jardura garatze-ko zailtasun nabarmenak dituztenean, hain zuzen ere.

Aurrekontu-doikuntzak Nafarroako Gobernuak enpresei laguntze aldera darabilen politikan zer

ondorio izan dituen jakiteko asmoz, ondoko galderak egiten ditugu, idatziz erantzun ditzazun:

– Departamentuak 2011ko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarte baimendutako laguntzen kopurua. Laguntza horien zenbatekoa eta enpresen zerrenda ere jaso nahi ditugu. Bereiz jaso nahi dugu ondoko laguntza-lerroen gaineko informazioa: inbertsiorako laguntzak, lehiakortasunerako laguntzak eta ikerkuntza, garapen eta berrikuntza proiektuetarako laguntzak.

– 2009an eta 2010ean epe eta lerro horietan beretan baimendutako laguntzen kopurua eta bolumen osoa.

– Laguntza horien eta 2011n baimendutakoen artean alderik baldin badago kopuruari eta bolumenari dagokienez, horri buruzko balorazio bat eta azalpen bat eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, AHTaren Cadreitako lanak inauguratzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Eloy Villanueva Cruz jaunak AHTaren Cadreitako lanak inauguratzeari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera hori 2011ko abenduaren 2ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egin dituen ekintzei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak erretiratu duela aurkeztu zuen galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako

finantzaketa pribatua lortzeko egin dituen ekintzei buruzkoa. Galdera hori 2011ko abenduaren 2ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2012ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomiko-etarako Zerbitzuburuak eginiko txostena, 2012ko urtarrilaren 16koa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 35. eta 37. artikuluetan xedatuari jarraikiz, hauxe ERABAKI DA:

1. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak onestea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

A) Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak:

– Dietak: 136,16 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

– Dietak: 161,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

Kilometro-ordaina: Kilometro bakoitzeko 0,31 euro.

B) Parlamentu-taldeentzako sari ekonomikoak:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.341,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptuon baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu gastuak: 1.507,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Antolaketa gastuak: 1.152,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.301,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

2. Bidaia ofizialengatiko ordainen zenbatekoa ezartzea, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez: Nafarroatik kanpora eginiko bidaietan, eguneko 111,00 euro; eta, atzerrira eginiko bidaietan, eguneko 175,24 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru parlamentarien ordainsariak 2012ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikotarako zerbitzuburuak foru parlamentarien ordainsariei buruz eginiko txostena, 2012ko urtarrilaren 17koa, eta foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan ezarritakoarekin eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiako eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2012. urterako, 55.601,14 eurokoa izatea.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2012. urterako, 49.422,10 eurokoa izatea.

3. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2012. urterako, 41.700,82 eurokoa izatea.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2012. urterako, 37.066,54 eurokoa izatea.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

